

KASU PRAKTIKOA

X-ko Udalak erabaki du kontratu-prozedurara jotzea, udal kiroldogiko teilatuaren birgaitze-obraren kontratua egiteko. Izan ere, teilatuak dagoeneko 20 urte dauzka, eta estankotasuna galdu du; horren ondorioz, ura iragazi da udal instalazioetara, behin baino gehiagotan. Baina udal arkitektoak egindako txostenean adierazi du urak ez dituela arriskuan jartzen instalazioen egonkortasuna eta segurtasuna. Orain dela hiru urte eta erdi hasi zen egoera hau, hots, kiroldogiko teilatuaren estankotasun eza eta ura instalazioetara iragaztea .

X-ko Udaleko kontratazio-teknikariak, alkatearekin bildu ondoren, pleguak idazten hasi da, eta, Interneten kontsultatu ondoren zer prezio dauden merkatuan honelako birgaitze-obretarako, adjudikazio-zenbatekoa ezarri du: 500.000 euro, BEZ barne.

Jarraitu beharreko kontratu-prozedura aztertzen ari direla, alkateak kontratazio-teknikariari esan dio prozedura negoziatuari helduko diola prozedura arrunten prozedura-*viacrucisa* saihesteko. Horretarako, bi arrazoi ematen ditu: kontratuaren zenbatekoa eta auzokoen eskaerari azkar eta eraginkortasunez erantzun beharra. Gainera, udalak gehiagotan jo izan du prozedura negoziatura, zenbatekoan oinarritua; izan ere, obra-kontratueterako legezko aukera bat da, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategineko 171.d artikuluan jasotzen dena. Eta horixe da alkateak prozedura negoziatua erabiltzeko ematen duen arrazoa.

Alkatea kezkatuta dago kiroldogian dauden itoginak ikusita (kiroldogiko leku zehatz batzuetan baldeak jarri behar izan dira ura batzeko); gainera, iragarpenen arabera, euri gehiago egingo du hila amaitzeko falta diren egunetan. Ondorioz, alkateak, auzokoen kexengatik larrituta dagoela, pleguak onartu ditu Alkatetzaren dekretu baten bidez, eta bertan adierazten da prezioa izango dela adjudikatzeko eta negoziatzeko irizpide bakarra

Pleguak onartu eta, ondoren beste izapide gehiago egin gabe, harremanetan jartzen da udalerriko lau enpresa ezagunekin, zeinak teilatuak birgaitzeko obretan aritzen diren, eta gonbit egiten die onartutako pleguen araberako eskaintzak aurkeztera (pleguotan prezioa ezartzen da adjudikatzeko eta negoziatzeko irizpide bakar gisa).

Ohiko bideetatik honako eskaintza hauek jaso dira: 67.000 euro (A enpresa), 500.000 euro (B enpresa), 435.000 euro (C enpresa), eta 475.000 euro (D enpresa). Eta, kontratazio-mahaiari deitu gabe eta proposamenak aurkeztu dituzten enpresekin beste kontaktu gehiago izan gabe, berehala adjudikatu dio kontratua A enpresari. Horretarako, argudio hau eman du: baloratu beharreko irizpide bakarra prezioa da, eta ekonomikoki eskaintza onuragarriena da, beraz, onena udal interesen ikuspegitik.

GALDERA HAUEI erantzun behar diezu modu arrazoituan eta legezko arrazoiak emanez:

1. Legezkoa da alkatearen jarduna, hau da, prozedura negoziatua erabiltzea kasuan adierazitako egitateetan oinarrituta?
2. Kontratazio-mahaia deitu behar zen adjudikazio-proposamena egiteko?
3. Zuzena da prozedura negoziatura jotzea eta adjudikatzeko eta negoziatzeko irizpide bakar gisa prezioa ezartzea?
4. Kasu honetan prezioa benetan eta modu efektiboan izan da balorazio-irizpidea eta, *a posteriori*, negoziatu da?

5. Zer lege-mekanismo erabiltzen dira prozedura negoziatuetan tratu-berdintasunaren eta bazterkeria-ezaren printzipioak betetzeko?
6. Zuzena da alkateak egindako adjudikazioa? Hau da, irizpide bakarra erabili du, prezioa, pleguetan aratuta dagoena; eta, beraz, eskaintza ekonomikoki onuragarrienari adjudikatu dio kontratua, proposamenak egin dituzten gainerako enprekin beste izapiderik egin gabe.
7. Zer beste kontratu-prozedura erabil litezke pleguan arautu izan ez balitz negoziatu beharreko alderdia prezioa dela?
8. Pleguetan negoziarako alderdiak jaso izan ez balira (bakarrik adjudikatzeko gutxieneko irizpideak), alkateak akatsen bat egingo zuen prozedura negoziatua erabiliz?

SUPUESTO PRÁCTICO

El Ayuntamiento X decide acudir al procedimiento contractual cuyo objeto consistiría en el contrato de obra para la rehabilitación del tejado del polideportivo municipal, ya que por razón de los años que tenía (20 años), había perdido estanqueidad, y eso estaba provocando filtraciones en las instalaciones municipales. No obstante, informa la Arquitecto Municipal que la filtración del agua no estaba poniendo en peligro ni la estabilidad y ni la seguridad de las instalaciones. Esta situación de falta de estanqueidad en el tejado del polideportivo, y que generaba la filtración del agua, la lleva viviendo el municipio desde hace unos tres años y medio.

El técnico de contratación del Ayuntamiento X, tras reunión con la alcaldesa, se adentra en la redacción de los pliegos, y tras consultar por internet los precios que rigen en el mercado para este tipo de obras de rehabilitación, señala el importe para la adjudicación, cuantificado en 500.000 euros, IVA incluido.

Estando todavía analizando el procedimiento contractual a seguir, la Alcaldesa se dirige al técnico de contratación y le dice que, vista la cuantía del contrato, y a los efectos de dar una respuesta ágil y rápida a la demanda vecinal, que se va a acoger al procedimiento negociado, evitando el viacrucis procedimental de los procedimientos ordinarios. Que, además, no es la primera vez que, por razón de la cuantía, el Ayuntamiento acude al procedimiento negociado, por ser una opción legal, prevista para los contratos de obra por el artículo 171.d, del Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público. Esta es la motivación de la Alcaldesa para hacer uso del procedimiento negociado.

Así, la Alcaldesa, apresurada por las goteras existentes en el polideportivo, y que han obligado a colocar baldes para la recogida de agua en zonas puntuales, así como por las previsiones de mayores lluvias en lo que queda de mes, y estando agobiada por las quejas de las vecinas y vecinos, aprueba los pliegos por Decreto de Alcaldía, donde se recoge que el único criterio para la adjudicación, así como para la negociación, será el precio.

Se aprueban los pliegos, y sin ningún otro trámite ulterior, directamente se pone en contacto con 4 empresas del municipio conocidas y que se dedican a la actividad de rehabilitación de tejados, y las invita a presentar ofertas, en base a los pliegos aprobados, donde el único criterio de adjudicación y negociación es el precio.

Recibidas las ofertas por los cauces ordinarios, consistentes 367.000 euros (empresa A), 500.000 euros (empresa B), 435.000 euros (empresa C), y 475.000 euros (empresa D), sin haber sido convocada mesa de contratación, y sin ningún otro contacto con las empresas proponentes, procede inmediatamente a adjudicar a la empresa A, argumentando que, visto que el único criterio a valorar resultaba ser el precio, se trataba de la oferta económicamente más ventajosa, por lo que la más favorable a los intereses municipales.

CUESTIONES a responder de manera razonada y legalmente motivada:

1. ¿Es legal el proceder de la alcaldesa acudiendo al procedimiento negociado en base a las circunstancias de hecho expuestas en el caso?

2. ¿Se debiera haber convocado mesa de contratación para realizar propuesta de adjudicación?
3. ¿Es correcto acudir al procedimiento negociado, fijando como único criterio de adjudicación y negociación el precio?
4. ¿En el caso concreto, el precio ha resultado ser de manera real y efectiva el criterio de valoración y, *a posteriori*, objeto de negociación?
5. ¿Qué mecanismos legales actúan en los procedimientos negociados para dar cumplimiento a los principios de igualdad de trato y no discriminación?
6. ¿Es correcta la adjudicación realizada por la alcaldesa, la cual, siguiendo el único criterio de adjudicación y negociación regulado en los pliegos y consistente en el precio, adjudica el contrato a la oferta económicamente más ventajosa, sin llevar a cabo ningún otro trámite con las empresas proponentes?
7. ¿Ante que procedimientos contractuales nos encontraríamos, si no hubiese sido regulado en el pliego que el aspecto objeto de negociación es el precio?
8. ¿Si no se hubiesen previsto en los pliegos los aspectos para la negociación, sino tan solo los criterios mínimos de adjudicación, incurriría en algún vicio la alcaldesa utilizando el procedimiento negociado?